



## LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako  
Idazkaritza Nagusia  
Europako Gaietarako Zuzendaritza

## PRESIDENCIA

Secretaría General de  
Acción Exterior  
Dirección de Asuntos Europeos

## Oharra BREXITA NEGOZIATZEKO 6. ERRONDAZ

**Noiz:** 2017ko azaroaren 6tik 10era arteko astean

### EMAITZA NAGUSIAK

Azken erronda, abenduan Europar Kontseilua bildu aurretik, lehen faseko negoziatioetarako markatu ziren hiru arlo nagusietan adostasunik lortu gabe amaitu zen.

Herritarren eskubideak direla eta, familia berrelkartzea, gizarte eskubideak esportatzea eta EBren Justizia Auzitegiaren rola –zirt edo zart egin gabe zeuden gaiak– oztopo izan ziren atariko adostasuna lortzeko, horrela kapitulu hau amaitutzat jo eta bigarren fasera igaro ahal izateko.

Irlanda dela eta, EBk Ipar Irlanda merkatu bakarraren eta aduana batasunaren barruan geratzeko proposamena egin zuen, baina Erresuma Batuak baztertu egin zuen Erresuma Batuen barruan muga berri bat sortzea. David Davis Brexiterako ministroak EBk bere ordenamendu juridikoa, merkatu bakarra eta aduana batasuna babestu nahia errespetatzen zuela adierazi zuen, baina hori Erresuma Batuen osotasun konstituzional eta ekonomikoaren kontura egiterik ez dagoela azpimarratu zuen.

Finantzen akordioa dela eta, Theresa May lehen ministroak irailean Florentzian bota zuen hitzaldian adierazi zituen intentzio onak zehaztasunik gabe jarraitzen zuten, eta hori nahitaetzko baldintza da EBrentzat lehen fasean nahikoa aurreratu dela irizteko. Hala eta guztiz ere, Davis ministroak aurrerapen tekniko mamitsuak ikusi zituen.

Testuinguru horretan, seigarren erronda adostasunik gabe eta ezkortasun giroan amaitu zen. Michel Barnier EBren negoziatzaile buruak esan zuenez, "hiru gai nagusietan aurrerapauso zintzo eta benetakoak eginez soilik igaro ahal izango gara negoziatioen bigarren fasera eta, ondorioz, Erresuma Batuen eta Bruselaren arteko etorkizuneko harremanari buruzko elkarrizketak hasi". Horregatik, Barnierrek Erresuma Batuari epe biko epean hiru gai hauei buruz zeukan jarrera argitzeko eskatu zion, abenduko Europar Kontseiluan akordio bat lortu ahal izateko.

*Oharra: bi aste gogor negoziatioetan eman ondoren, EBk eta Erresuma Batuak akordioa lortu zuten, Jean-Claude Juncker Europar Batzordeko lehendakariak eta Erresuma Batuko lehen ministroak 2017ko abenduaren 8an sinatua. Akordio honen edukiari buruzko informazio gehiago 2017ko abenduaren 15eko Europar Kontseiluari buruzko Oharrean aurki daiteke.*